

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko urtarrilaren 12a



## Iratitik Pirinioetan zehar

■ Hilaren 27an aurkeztuko da Iruñean Pirinea, lerako txakurrekin Pirinioak zeharkatzen dituen lasterketa. Pirenen seigarren ekitaldian gure lurraldeak etapa bat izango du lehendabiziko aldiz, eta elurra eginez gero, Abodiko mendizerra izango da Europako 40

taldeendako irteera puntua. Hiru nafarrek hartuko dute parte 15 etapa izango dituen lerako txakurren proba bitxi honetan: Julian Zufiaurrek, Iker Ozkoidik eta Enrique Murolasek. Hiruren nahia eta gogoa La Molinako azken etapara iristea da. ■

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ez gara ez makalak markak hausten. Behin hasiz gero, ez gara bide erdian geratzen dien horietakoak.

Topikoak inon baino gehiago gurean dira alferrikakoak, soberan ere. Nork esan behar zien bizitza osoa hurrez erditzen eta hazten eman zuten gure amatxiei oraingoa gertatu behar zela. Nafarroan, munduko beste edozein tokitan baino haur gutxiago jaiotzen da egun. Ez da inon gurean baino jaiotze tasa txikiagorik.

Eta nola gerta daiteke hori gurea bezalako erreserba izpirituala omen den lurraldean? Ez ginen ba bizitzen Elizak aginduriko kontserbadurismo gogorren menpe? Ez zizkiguten behar bezala burmuinak betiko lotu? Ez ziguten bide zuzena zein zen argi erakutsi?

### Haurrak

Ba, ez nonbait. Hemen ez dio jadanik inor gutxi kasurik egiten Erromako aitaxi atzerakoiari, sexu harremanen kontuetan behintzat. Zeren egin, egiten da, ez? Beti bezainbeste edo beti bezain gutxi. Baina datu hotzak hor daude. Egiten direnek ez dute lehengo ondorioz izaten. Eta ez da hori poloniarrek nahiko lukeena.

Beraz, batzuk agerian oraindik itxurak gordetzen saiatzen badira ere, iraultza bueltatu ezinezkoa gertatu da isil-isilean etxe barnean. Oraindik badira preserbatiboak saltzeari uko egiten dioten botikariak eta bada gure artean Jainkoak nahi adina ume ekartzeko dotrina zabaltzen segitzen duen sekta erlijioso kaltegarria.

Ba, basamortuan ari zarete predikuak

botatzen, majoak. Badirudi zuen meziek alderantzizkoa lortzen dutela. Badakit etorkizuna kolokan jartzen ari gara. Guri jubilazioa nork ordaintzerik ez dugula agian izanen. Baina, gaur eta hemen biziki pozten nau gertatutakoak. Izorra zaitezte, zakilak eta umetokiak soilik haurrak egiteko balio zutela sinestarazi nahi izan zeniguten guztiguztiak.

Gorputzak gure plazerretarako erabiltzen ikasi dugu eta asko kostata, baina, azkenik, zuen zapalkuntzaz libratu dugu burua.

Nik zalantza larria daukat hala ere, kasualitatez ez zenuten zuek, gu guztiok zikiratzen ibilitako madarikatu horiek, hiesa edo *sida* asmatu eta zabalduko? X

### KONTZERTUAK

**Elizondo:** Herriko Kasinoan Mo- liendo Cafe Trio jazz taldeak joko du gaur gaueko 23.00etan.

**Agoitz:** Desoreka eta Eztanda taldeek herriko elkarteetan joko dute bihar 22.00etan. Sarrera dohainik da.

**Iruñea:** Errotxapea auzoko Ga- rra kafetegian De Dos En Blues Band taldeak joko du bihar gauerditik aitzina.

### ZINEMA

**Iruñea:** Olite zinemetan Beldu- rrezko Zinemaren Zikloaren ba- rruan, datorren asteartean, ur- tarrilak 16, *Doctor Petiot* pelikula eskainiko dute. Emanaldia arratsaldeko zortzietan izanen da; eta sarrerak 250 pezetan izango dira.

### ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Karlos III.a aretoan Juan Luis Morazaren lanak ikusteko parada dago otsailaren 4ra bi- tartean.

**Iruñea:** Zapateria 40 aretoan Pa- blo Serranoren eskulturak daude ikusgai heldu den otsailaren 4ra arte. Erakusketa, lanegunetan 18.00etatik 21.00etara dago za- balik, eta jaiegunetan 12.00eta- tik 14.00etara.

**Iruñea:** Central Hispano 20 are- toan Isabel Soltzagaren lanak ikusteko parada dago urtarrila- ren 19ra arte. Erakusketa aste- lelenetik larunbatera bitartean dago zabalik, 9.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara.

### BERTSO SAIOA

**Eratsun:** Herriko ostatuan ber- tso afaria, Anjel Mari Peñagari- kano eta Andoni Egañarekin. Bertso emanaldia 21.00etan izanen da bihar.

### MENDI IBILALDIAK

**Iruñea:** Txantrea auzoko Mendi Taldeak mendirteera antolatu du Belaguara datorren igande- rako. Ibilaldian parte hartu nahi duenak Armonia elkarteetan eman behar du izena, gaur 20.00etatik 21.00etara.

**Iruñea:** Anaitasuna, Donibane eta Nafarroako mendi elkarteek datorren iganderako txangoa antolatu dute Urkiolara. Urki- olara autobusean joan dira, eta handik Anboto mendira igoko dira. Ibilaldian parte hartu nahi duenak gaur du izena emateko azken eguna, eta elkarte horien egoitzetan egin beharko du arratsaldeko 20.00etatik 21.00etara.

### BESTELAKOAK

**Iruñea:** Gaztetxean Chiapasen eta Mexikoren alde elkartasun jaia antolatu du Komite Interna- zionalistak. Festan musika me- xikarra, mojitoa eta tekila izanen dira nahi beste. Jaia gaueko 22.30etan hasiko da.

## Nafarroako kronika

Fermin Erbiti

# Albiste onak

**B**aten batek baikorregia naizela erranen badu ere, datozen hilabeteetan Nafarroako euskaldunok albiste onak jasoko ditugula pentsatu nahi dut. Badakit batzuen iritziz hemen aitzina egitea ezinezkoa dela, badakit beraien- tzat gaur egungo agintariak eta aurrekoak, euskarari dagokionez, berdintsuak direla eta, beraz, ezin dugula aldaketarik espero. Baina nik, berriro diot, egoerak hobera egiten duela uste dut. Aldaketa, ziur aski, ez da euskaltza- leok nahiko genukeen bezalakoa, askoz murri- tza goa baizik. Hala eta guztiz ere, nire ustetan hauxe da orain arteko jokabide zikoitza alde batera utzi eta normalizazioaren alde lanean hasteko garaia. Nafarroako agintarien euska- rarekiko jokabidea ezagutzen duen edonork badaki aurrerapen hori ez litzatekeela hutsaren hurrengoa, behin aurreko jokamolde iraingarriak baztertu eta normalizazio bidean hasiz gero, emaitzak ere etorriko zaizkigulako eta, batez ere, euskarak aitzina egiteko behar duen lasaitasun giroa eskuratuko duelako.

Lan honetan Administrazioak badu zeregin handia. Azken urteetako iruzur giroak hainbat lege eta jokamolde aldatuarazi dituen bezalaxe, agintariek konturatu behar dute euskarari behin eta berriz erasotzean nafar guztiok iruzur larria egin digutela. Foru hobekuntza, 1986ko legea bera eta, batez ere, eguneroko jokabide eta erabakiak iraingarriak ezezik lotsagarriak ere izan dira. Korruptzioan bezala, gai honetan ere inpunitate giroa izan da nagusi foru lu- rralde honetan, edozein politikarik edo funtzionariok hizkuntza isildu, baztertu eta eraso egin ahal izan diolako inolako arazorik gabe.

Hori dela medio euskaltzaleen artean bi talde sortu dira: «Hemen aitzina egiterik ez dago» erran eta aldaketa ttikiak onar- tzeke prest ez daudenak eta, bertzelde, pragmatismoaren izenean kikiolduta jo- katu dutenak. Bi jokabideok, nire iritziz, inoiz ez dute emaitza onik eman eta ho- rregatik premiazkotzat jotzen dut bertze arlotan hainbertze aipatzen ari den hi- rugarren bidea hemen ere urratzea eus- kaltzaleak bildu eta guztien ahaleginak batuko lituzkeena.

◆ Euskarak gaur egun motore bikoitza

behar du. Bata Administrazioan, hizkuntza bultzatzea helburu duen Departamentuak zu- zendurik, gainerako departamentu guztietara bere eragina hedatu behar duena. Bertzea, euskararen aldeko taldeena. Biek koordinaturik lan egin behar dute epe luzera baina, batez ere, epe motzera xede zehatzak finkatuz hizkuntzak normalizazioa behar duen arlo guztietan. Poli- tikoak ezezik, goi mailako funtzionarioak ere kontuan hartuz, gehienetan hauek baitira hiz- kuntzaren erabileran azken hitza dutenak.

Bidezkoa dena aldarrikatzea da Diputazioan arduraren bat duten euskaltzaleen zeregina. Alde horretatik, argi dago Nafarroan badirela, tamalez, aldarrikapen anitz eta bada garaia ki- kilduta segitu beharrean horiek guztiak zerren- da batean sartu eta dagokionari eskatzen has- tekoa. Euskalerrria eta Xorroxin irratia, ETB, helduen euskalduntze eta alfabetatzea, Admi- nistrazioaren euskalduntze plana... horiek eta bertze anitz lehen bait lehen konpondu beha- rreko arazoak dira. Lerro hauek sinatzen di- tuena arazo horiek konpontzeko oraingoa azken urteetako egoerarik hobereana delakoan dago. Agian baikorregia naizelako. Baliteke.



### asteko pertsonaiak



Luis Roldan  
Guardia Zibileko  
zuzendaria ohia

■ Luis Roldan Guardia Zibileko zuzendari ohia akusatu gisa itzuli zen atzo Nafarroara. Roldan Iruñeko epaitegietako bi sumariotan dago in- putatuta: Gobernu Ordezkaritzako iruzurraren kasuan diru publikoa desbideratu izana leporatu diote eta Urralburu eta Aragonen aferan, berriz, diru komisioak jaso izana Nafarroako hainbat herrilaren adju- dikazioen truke. Roldan Gobernuko ordezkaririk izan zen Nafarroan 1982ko abendutik 1986ko azarora bitarte. Gero Guardia Zibileko zuzendari izendatu zuten. Modu ilegalean aberastu zela jakin zenean, ihes egin zuen. Iazko otsailean Bangkokera atxilotu zuten eta geroztik Brievako (Avila) kartzelara dago espetxeratu. Iruñera inputatu gisa deklaratzeko ekarri zuten.



Juan Luis Irigarai  
Osasunako presidente berria

■ Juan Luis Irigarai ez du oraindik, arazo formal bat dela medio, Osasunako presidente postua hartu, baina bera izanen da hemendik aurrera talde gorritxoaren buru. Javier Garrok eta Javier Bakaikoak, orain arte Osasunako lehendakari eta lehendakariorde zirenek, karguak utzi dituzte, eta atzo aurkeztu zioten dimisio agiria Osasunako zuzen- dartzari. Lehendakari berria arkitektoa da ogibidez, eta talde nafarrak izan duen presidente gazteenetakoa da. Ez du lan makala aurrean; Javier Garrok eta Javier Bakaikoak azken garaian besteekin izandako tira-birak baztertu beharko ditu eta talde gorritxoaren Lehenengo Mailara igotzen saiatu.

### ahaztu gabe!



### ESKI ASTEA

**Iruñea:** Negua bete-betea du- gun honetan eta elurra goi men- dietara iritsi dela aprobetxatuz, Nafarroako Kirol Elkarteak eski aste bat antolatu du Alpeetan, neguko kirolak eta batik bat es- kia gustuko dituztenen guztien- tzat.

Nafarroako Kirol Elkarteak antolatutako eski astearen data oraindik erabatu gabe dago ba- dago ere, datorren otsailean izan- den da, Tirok hegoaldean. Elkar- teak eski egiteko aukeratu duen estazioa Madonna di Campiglio da, Brentako Dolomitetan kokatua.

Alpeetan otsaileko aste oso bat eskiatzei igaro nahi duenak, mendi elkarteak Iruñean duen egoitzan eman beharko du izena: Jarauta kaleko 78. zenbakian, hain zuzen ere.

Interesatuentzat, astelehene- tik ostiralera arratsaldeko 7eta- tik 9etara bitartean egonen da zabalik elkarteak.

Era berean, eski astearen pre- zioa eta bidaiaren bestelako xe- hetasunak jakin nahi dituenak Nafarroako Kirol Elkarte- ko 22 43 24 edo 22 98 20 telefono- tara dei dezake astean zehar, ai- pututako orduetan.

### adi!

#### Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobaitu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

#### Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizke- tak.

#### Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaine- rik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Tutera

# Eraikin berria Argiarentzako

Astelehenean zabaldu zituen ateak Fontellasen eraiki den ikastola berriak

**J**oan den astelehenean ireki zuen Tuterako Argia ikastolak Fontellasen egin duen eraikin berria, 3.000 metro koadrokoa. Ikastola honek 114 ikasle ditu egun, eta 140 milioi pezeta inguruko kostua izan dute joan den maiatzaren hasi ziren lanek. Tuteran egin zen Nafarroa Oinezan irabazitik ordainduko da horren % 40.

Erredakzioa / Iruñea



Fontellasko eraikina, artean amaitu gabe zela.

OSKAR MONTERO

ERRIBERAK badu behar bezalako ikastola, duela gutxi arte sinestezina bazirudien ere. Hamaika urte tegi batean egon ondoren, gutxienez baldintzak ozta-ozta betez, eta irakasleen eta gurasoen ahaleginari esker eutsita, azkenean erdietsi dute sortzetik beretik buruan izan duten ametsa Erriberako ikastolen inguruan biltzen diren euskalzaileek: euskarazko irakaskuntza txukuna emateko zentroa. Astelehenean izan zen lehendabiziko eguna, eta nahiz eta aurkezpen ofiziala oraindik ez den egin, ikastolak dituen eraikuntza peregabeak ikustatzeko egun aproposa izan zen.

Lau solairu ditu Manolo Blasco arkitektoak diseinatutako zentroak. Behekoan sukaldaria, jantokia, gimnasioa, tegi bat eta patio bat dago. Lehenean harrera, ikasgelak, irakasleen gela eta

zuzendariaren bulegoa. Bigarren solairuan lau ikasgela daude paratuta, baina hurrengo urtera arte ez dira erabiliko. Solairu honetan beste 10-12 ikasgela txukundu litezke, beharra izanez gero. Hirugarren solairuan ganbara gelditu da, baina egokitu liteke ikasgela gehiago jartzeko, eskaerak hala behartuko balu.

Kolore anitz eta argi asko dauka zentroak, horixe izan baitzen irakasleek eta ikastolako zuzendaritzak azpimarratutako puntu

bat. Horrela, korridoreek partxis jokoaren lau koloreak dituzte, eta ikasgelek kolore lasaigarria dute, arina eta samurra.

Astelehena egun zoriontsua izan zen, beraz, denendako. Garbiñe Korta zuzendariak azaldu zuenez, eraikin berriak indartu egin du ikastolaren egoera, eta dirulaguntzak ere ez dira jadanik amets bat, itxaropena baizik. «Lehen bagenekien eskaintza ona zela», azaldu zuen, «baina orain, baldintza oneko eraikin batek

ziurtatzen dizu proiektu hori aurrera eramatea, eta pozgarria da oso». Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) lortzea da orain helburua. Horretarako arazorik handiena goi mailako taldeen tamaina da, txikiak dira eta ikastolakoak.

Zentro berriaren irekiera ofiziala udaberrian egingo da, apirilean edo maiatzaren, eta ekitaldira gonbidatuko dituzte Tuterako eta Erriberako taldeak eta administrazioko ordezkariak. X

Atarrabia

## Eragile soziokulturalak prestatzeko ikastaroak

Udalak antolatu ditu, hilaren 25ean hasita

Erredakzioa / Atarrabia

ERAGILE soziokulturalen II. ikastaroa antolatu du urtarrilaren 25tik aurrera Atarrabiako Udaleren Kultura eta Gazteria Zerbitzuak. Ikastaro hauen helburua eragintza soziokulturala, eragile edo sustazaile soziokulturalaren papera eta taldepraktikari buruz gogoeta eskaintzea eta oinarri teorikoak ziurtatzea da. Edozein pertsona, elkarte edo talde badu ikastaro hauetan parte hartzeko eskubidea, denendako zabalik baitaude.

Ostegunero izanen dira emaldiak, urtarrilaren 25ean hasi eta maiatzaren 9ra arte, 18etatik 21etara Kultur Etxean, eta matritikula mila pezeta kostako da. Gutxienez jarraipena dutenak ziurtagiri bat jasoko dute.

Amparo Zugasti eta Ana Ansa izango dira irakasleak, eta egitaraua lau sailetan banatu dute.

Lehenean eragintza soziokulturala landuko dute: ezaugarriak, balioa, aplikazioa, modalitate desberdinak, kultur demokratizazioa bezalako kontzeptuak... Bigarren sail nagusia eragile sozialarena izango da, hau da, perfila, bere funtzioak eta eragile soziokultural motak.

Hirugarren saila talde lanean aritzeko ikastaroa izango da, eta talde lanaren ezaugarriak, lanaren banaketa eta giroa eta lanaren arteko oreka jorratuko dira. Laugarren sailean plangintza, exekuzioa eta lanaren ebaluaketa landuko dira, eta lan bat ongi egiteko eman beharreko urratsak izango dira ardatz. Bukartzeko eragintza asoziatiboa landuko da, hau da, partehartze soziala, elkarte baten elementuak eta eragintza asoziatiboa.

Izena emateko Atarrabiako Kultur Etxera jo behar da urtarrilaren 20a baino lehen, eta hantx galdetegi bat bete. X

Uharte - Arakil

## Pilota txapelketaren VIII. finala Larrebieetan

Sakanako eskulari gazteak ikusteko aukera

Erredakzioa / Uharte-Arakil

SAKANAKO VIII. Pilota Txapelketaren finalak jokatu dira bihar, larunbata, Uharte-Arakilgo Larrebieetan pilotalekuan. Aurrebenjaminen hasita Kadete bitarteko maila guztiek izango dituzte euren finalak, azaroaren 4an hasi zen txapelketa honi amaiera emateko. Irurtzun, Uharte-Arakil, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Altsasu eta Olaztiko taldeek parte hartu dute kanporaketetan.

Orotara 84 bikote lehiatu dira maila guztietan: 5 aurrebenjaminetan, 21 benjaminetan, 32 alebin mailan, 16 infantiletan eta 8 kadeteetan. larunbatero antolatu diren hainbat partidutan.

Aurrebenjaminetan honakoak izango dira partidukoak: Altsasuko Diez de Ulzurrun-Mendiluze III Olaztiko Agirre-Aitorren aurrean. Benjamin mailan, B tal-

dean, Uharte-Arakilgo Garzian-dia-Irañeta bikoteak Irurtzungo Lazkoz-Lazkoz izango du aurrean, eta A taldean Olaztiko Beunza-Aldaz bikotearen aurrean Altsasuko Gorri-Bueno bikotea izango da. Alebin kategorian ere bi talde osatu dituzte antolatzaileek, partaide asko zegoela-eta. A taldean Uharte-Arakilgo Gorriti-Gorriti bikoteak jokatu du Altsasuko Zabalo-Mazkiaran bikotearen aurrean, eta B taldean Irurtzungo Espartero-Santesteban bikotea Etxarri-Aranazko Ubeda-Urrestazurekin lehiatuko da.

Infantiletan, B taldean, Uharte-Arakilgo Perez-Beregala eta Irurtzungo Legarra-Elizalde izango dira nor baino nor, eta A taldean Uharte-Arakilgo Uharte-Gorriti eta Altsasuko Olmedillo-Mendiluze. Kadete mailan Altsasuko Sueskun-Rodriguez eta Escudero-Noveleta bikoteak ariko dira txapelaren bila. X



tako gisa pintxo goxo batzuk hartzen ditudan uanean, zuek, asko jota, pastelxo trakets horietako bat janen duzue. Ni, bazkaritan, metalezko sardexka, koiara eta labanarekin plater dotore baten gainean paratutako jaki bikainak hartzen ari naizelarik, zuek plastikozko kubiertoekin metalezko erretiluetan pilatutako betiko anabasa koi-petsua irentsiko duzue. Bazkalostean neska lagunarekin, senideekin eta lagunekin solasean ari naizelarik, zuek, halabeharrez, ziegan lo kuluska botako duzue. Arratsaldean Iruñean barna paseo luzea emanen dut, zuek patioan goiti eta beheiti zabilzate. Niretzat gau luzea hasiko da ilunabarreko bederatzietan, afaldu eta gero, zuek ziegatan ixten zaituztetenean... Triste noa, bai.

Besarkada bero bat asteartean gose greban izanen zaretentzat.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta  
Triste noa

ETXE SANTU honetan giltzaperatu nindutenetik hamaika kide ikusi ditut zigorra betetakoan kalera ateratzen. Azken agurra oso antzekoa izan da beti. Lehenik eta behin biharamunean aterako zena arropa erantzi gabe patioan ur hotzez dutxatu dugu. Gero lasai-lasai afaldu dugu, eta horren gibeletik guztiok haren ziegan elkartu gara, ziegak itxi baino lehenago, agur esateko. Nik behin eta berriro gauza bera esan dut: «Ongi pasa, kabroia». Joaten zenak ere esaldi bera errepikatu du beti: «Ez pentsa kontent nagoenik; izan ere, sekulako pena ematen dit zuek hemen uzteak. Triste noa».

Heldu den asteartean urtebete egingen dut kartzelan. Hau da, ordaindu beharrekoa ordaindu eta gero, datorren asteartean karrikaratu naute. Gauzak horrela, barruan geratuko zaretanoi betikoa esateko tenorea heldu zait:

Ez pentsa kontent nagoenik; izan ere, astearte goizean nik ardo gorri nafarra edanen dudana bitartean, zuek egunero kafesne petrala edanen duzue. Nik neska laguna, senide eta lagunak besarkatzen ditudan bitartean, zuek funtzionarioak izanen dituzue aurrez aurre. Nik hamaike-

Pirena  
Iruñetik abiatuta

Txakurrak lerari tiraka. Pirenan 6 eta 12 txakur bitarteko taldeak eraman beharko dituzte musherrek.

GONZALO M. AZUMENDI

Alberto Barandiaran / Iruñea

ELURRAK bakarrik galaraz dezake Nafarroak lehendabiziko aldiz izatea lera-zakurrekin Europan egiten den lasterketa garrantzitsuenetakoa. Zeruari begira daude, hori dela-eta, duela sei hilabete proiektu honetan hasi zirenak, eta baita parte hartu behar dutenak ere. Egun ez dago elurrik Abodi gainean, eta hurrengo bi asteetan egiten ez badu, Irati-Zaraitzu etapa bertan behera geldituko litzateke. Elurra baita lasterketa bitxi honi bizia eman eta ken diezaiokeena.

Duela sei urte egin zen lehendabiziko aldiz Pirinioak alderik alde zeharkatzeko lasterketa. Ordura arte proba solteak antolatuta zeuden han eta hemen, eta Espainiako txapelketa zeritzana Benasquen, Alto Campoon, Baqueira Beret eta La Molina eskialtzeko zentroetan egiten zen. 1990ean, ordea, eta Kataluniako Neguko Kiroletako Federazioaren bultzadari esker, Pirena deitzen den lasterketaren estreinako ekitaldia prestatu zen. Sei urte hauetan gora egin du etengabe lasterketa honek, eta egun izen handia du Europan egiten diren artean —garrantzitsuenak, jakina, Alpeetan korritzen dira—. Aurtengo ekitaldiak, dudarik gabe, lasterketarik entzutetsuenetakoa egingo du Pirena.

Eta aurtengoak Iruñean izango du aurkezpen ofiziala, hilaren 27an, Royal Canin txakurrendako janariaren banatzailea den

**H**ilaren 27an egingo da Iruñean Pirenaren aurkezpena, hau da, lera-zakurrekin egiten den lasterketaren aurkezpena. Pirinioak hamabost etapatan zeharkatuko dituen proba honek Abodiko mendizerran du antolatua lehen etapa, nahiz eta, elurra falta dela-eta, oraindik kolokan dagoen. Sei euskal 'musher'-ek hartuko dute parte.

## Alaska etxean

*Europako txakur eta lera onenak izango dira Iruñean*

Pablo Elsoi esker. Enpresa hau da lasterketaren babesle ofiziala, eta aurten Andorran eta Frantziara sartu behar duela kontuan hartuta, Nafarroara ekartzeko ahaleginetan hasi zen Elso. Berehala jarrera aldekoa lortu zuen Pirenako antolatzaileengan, eta Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak ere ez zuten oztoporik jarri aurkezpena eta Iratiko lehen etapa diruz laguntzeko. Zaraitzuko Batzar Nagusiarekin korapilatsuagoa izan da negoziazioa, eta egun oraindik zehazteke daude detaileren bat edo beste kenduta —elurra bota ondoren lurra zapaldu behar dela-eta zeinek ordainduko dituen gastuak, esate baterako—, dena lotuta dago.

**Euskal Herriko sei talde** • Europako 40 talde —Euskal Herriko sei, Espainiako 18, Frantziako sei, Alemaniako bi eta Andorra, Italia, Finlandia, Belgika, Holanda eta Argentinatik bano— Iruñean bilduko dira, hilaren

26an, Reino de Navarra hotelean. Hurrengo egunean, hilaren 27an, Yanguas y Mirandan dagoen karparen azpian Pirenaren aurkezpen ofiziala egingo da. Ikuskizuna Pirenako antolatzaileen eta Nafarroako Nelke lerako txakurren zaleak biltzen dituen taldearen artean prestatu da, eta ikusgarria izango da oso. Hasteko ibilbide eta ezaugarri guztiei buruz bideoak eta azalpenak emango dira, eta ondoren, Gotorlekuko lubakietatik zehar lasterketak antolatuko dituzte Nelke taldekoek. Sei txakur izango ditu lera bakoitzak, eta txakur bakar batek tiratutako mendiko bizikletekin ere lasterketak izango dira.

Hurrengo egunean, Iratira, elurra izanez gero, beti ere. Otsagabian bertan jaialdia egin nahi dute antolatzaileek, partaide guztien aurkezpena egiteko, eta gero dorsalen zozketa ofiziala egingo da bertan. Ibilbidea Abodiko fondoko eskiko aterbetik aterako da eta handik, mendi-

zerratik zehar, Elurretako Ama Birjinaren ermitara doan errepedearekin topo egin arte. Hortik jarraitu da berriro errepedea hartu arte, eta itzulia Urtxuria ibarrraren ertzetik egingo da, aterbera heldu arte. Sariak Abodin bertan jasoko dituzte irabazleek, Zaraitzuko agintarien eskuetatik. Antolatzaileek taberna eta zerbitzu guztiak paratuko dituzte, eta hiru mila pertsona inguru izatea espero dute horretarako. Elurrik ez balego? Bertan behera geldituko litzateke lasterketa, eta Iruñeko aurkezpena zertxobait luzatuko litzateke. Gerta liteke hurrengo etapendako nahikoa ziurtasuna ez izatea —Candanchun egin behar da bigarrena eta egun ez da elurrik han—, eta Pirena osoa beste bi aste ateratzea.

**Duela 70 urteko balentrian oinarrituta** • Maila handiko ikuskizuna, nolana ere, 50 ibilgailu inguru —tartean helikoptero bat—, 125 pertsonatik gora —partaideak, antolatzaileak,

medikuak, albaiteoak— eta antolakuntza konplexu samarra duelako Pirenak. Hain zuzen ere, inoiz baino partaide gehiago izango ditu aurten lasterketak. Ez du zerikusi handirik duela 70 urte, 1925ean, Alaskako lautada izoztuetan zehar mila milia egin behar izan zuten lerako txakur haien lasterketarekin, orduan Nomen izeneko herria hiltzen ari zen difteriaren aurkako botikak eramateko egin baitzen bidaia, baina gogoratu behar da orduko gertakari hartan daukala gaur egungo Pirenak oinarria. Izan ere, ondoren lasterketa bat antolatu zen hori gogoratzeko, egun mundu osoan ezaguna den Iditarod izeneko hain zuzen ere. Ideiak harrera ona izan zuten Amerikako beste puntu batzuetan eta Europan, eta horien artean da 15 etapatan zehar hilaren 27tik otsailaren 10ra bitarte Pirinioak zeharkatuko dituen Pirena. Saria 750.000 pezetakoa (30.000 libera inguru) izango da lehendabizikoarendako, 500.000 pezetakoa (20.000 libera inguru) bigarrenarendako eta 300.000 pezetakoa (12.000 libera inguru) hirugarrenarendako.

Enrique Murolas, Iker Ozkoidi eta Julian Zufiarre nafarrekin batera, beste hiru euskaldun izango dira irteera puntuan: Axen Garitano eta J.L. Berasategi gipuzkoarrak eta Joseba Iribar bizkaitarra. Denek husky arrazako txakurrak eramango dituzte lerak tiratzeko, Zufiurre izan ezik. X

Pirena  
Iruñetik abiatuta

# Hiru nafar lasterkan

I. Ozkoidi, J. Zufiaurre eta F. Murolas

A.B./Iruñea

PIRENAN parte hartzeko txakurak, lera eta gogoak izatea nahikoa dela esaten ohi da. Animo handia, erantsi beharko, luzea baita oso —15 etapa eta 30 kilometro inguru egunero— eta sakrifizioak ere egin behar direlako tropelarekin batera joan ahal izateko. Europa osoko zazpi telebista kate, bederatzia egunkari eta 3.000 ikusle egunero izateak, ordea, badakartza bere morrontzoak, eta antolatzaileek euren arauak estuki jarraitzea behar izaten dituzte *musher*-ak —horrela deitzen zaie lera dutenei—.

Esate baterako, lera guztiek gutxienez sei txakur izan behar dute, eta gehienez hamabi. Sailkapen bakarra dago, ordea. Txakurrek urtebete izan behar dute gutxienez, eta antidopin kontrolak daude, hala txakurrendako nola *musher*-endako. Behin lasterketa hasia dela ezingo dira txakur berriak paratu, eta zigortzeko edozer tresna eramanez gero lasterketatik kanpo geldituko da taldea. Halaber, talde bakoitzak badu txakurrek zikindutakoa garbitu beharra.

Hiru dira aurten Nafarroatik aurten joango diren *musher*-ak: Julian Zufiaurre tafallarra eta Iker Ozkoidi eta Enrique Murolas iruindarrak. Julian Zufiaurre tafallarrak 25 malamute dauzka bere etxean. Txakur puska hauek dira —huskyak, samoiedoarrak eta groenlandiarrekin batera— Pirenak onartuta dituen arrazetako bat. Indartsuenak di-

ra malamuteak, sendoenak. Zufiaurrek hamabi txakur eramango ditu lasterketara, eta bere asmoa bukatzea da, ez besterik. «Hemengoan artean onentsuekin ibiltzea espero dut», azaldu du, «baina bukatzea nahikoa izango litzateke».

Zufiaurre iaz txapeldun gelditu zen Baqueira-Bereteko (Lleida) eski estazioan egin zen Espainiako Txapelketan, eta gaur egun Euskal Herriko *musher* onenetakoa dela esan daiteke, Enrique Murolasekin batera. Entrenatzeko Tafalla inguruko pistak erabiltzen ditu, eta egunero hamarretik 30 kilometrorra bitarte egiten ahalegintzen da. Hirurehun kiloko gurdia paratzen du txakurren atzetik, eta aurrera. Horixe da euskal zaleek duten beste zailtasunetako bat. Elur gutxi eta praktikatzeko toki eskasak izanda, entrenamendua lur gainean egiten da urtean zehar, propio prestatutako gurdiekin, nahiz eta txakurren gusturako franko hobia izan elurra.

Iker Ozkoidi gazteak Iruñea eta Itzako zendearn inguruko pistak hartzen ditu egunero, lan egin ondotik, txakurrak entrenatzeko. Berak huskyak ditu, eta Zufiaurrek bezala, lehendabiziko aldiz hartuko du parte Pirena txapelketan, aurretik Nafarroako eta Espainiako txapelketetan sollik korritu du-eta. Zortzi txakur ditu Ikerrek Iruñeko bere etxean, eta utzi dizkioten beste lau animaliarekin osatuko du eraman nahi duen hamarreko taldea.

## Federaziorik gabeko taldea

HIRUROGEITA HAMAR bazkide biltzen dira egun Nelke Iruñeko Lerako Txakur Taldean, Donostiako Burundarekin batera Euskal Herriko bakarra. Lasterketak bilatu eta antolatzea, jarduera honi buruzko informazio guztia bazkideei bideratzea, beste talde batzuekin harremanak lotzea, ekintzak antolatzea... federazio baten lana egiten du, azken finean, taldeak, horixe baita daukan beharrik premiazoena: onspen ofiziala.

Katalunian izan ziren aitzindariak gai honetan, eta bertako Neguko Kirolen Federazioaren barruan daude lerako txakurrekin lasterketak egiten dituztenak. Nafarroako talde hau, alabaina, Madrilgo federazioaren azpian dago, eta oraindik ez dute Espainian onartu kirol gisa, nahiz eta Carlos Merino taldeko idazkariak azaltzen duenez, merezimendu nahikoak egin horretarako. «Oso kirol zaharra da, jende askok egiten duena eta ez dugu inolako laguntzarik, beti guk bilatu behar izan ditugulako gure finantzabideak. Hala ere, orainxe sortzen ari diren beste kirol mota batzuk, bazkide gutxiago izanda ere, kirola izendatzen dute».

Duela hiru urte eskas sortu zen Nelke taldea, eta 1992an lehen exhibizio-lasterketak egin ziren Lesakan, Itzan eta Pitillasen. 1993-94ko denboraldian Nafarroako lehen txapelketa antolatu zen, eta Lesakan, Zuastin, Barañain, Bergaran (Gipuzkoa) eta Pitillasen egin ziren lasterketak. Jakina, denak lur gainean, propio prestatutako gurdien gainean —entrenatzeko erabiltzen diren horietan—. Iaz Lesaka, Itza, Barañain, Nazar, Bergara eta Abodiko mendizerra (azken hau elur gainean) izan ziren lasterketak egiteko erabili ziren tokiak, eta taldeko partaide batzuk Italian jokatu zen Munduko Txapelketa, Espainiako Txapelketa eta Kataluniako Ligako zenbait lasterketan aritu ziren.

Aurtengo txapelketa hiru lasterketa egin dira dagoeneko —Nazar, Altsasu eta Soria— eta bi gelditzen dira elur gainean —Belagua eta Linza (Huesca)— eta beste hiru lur gainean —Tafalla, Berriozar eta Kalagorri (Errioxa)—. X



Julian Zufiaurre tafallarra, Espainiako Txapelketako lasterketa batean. Iaz txapelduna izan zen.

EGUNKARIA



Iker Ozkoidi iruindarra, txakurrekin entrenamendu batean.

EGUNKARIA



Enrique Murolasek iaz hartu zuen parte Italian jokaturako Munduko Txapelketan.

EGUNKARIA

## Xanti Begiristain

## Gose grebak eta gose grebak

■ Gaur egun guztiz nabarmena da Euskal Herrian pairatzen dugun egoera ez-normalizatua. Hori, honako gertaeretan froga dezakegu, esate baterako: gatazkak, istiluak, mugidak, manifestaldiak, bilkurak, kontzentrazioak, irainak, atentatuak, *bandalismoa*, atxiloketak (asko eta askotan arrazoirik gabe), tratu txarrak eta torturak (benetako demokrazia batean nekez justifikatu litezkeenak), bahiketak, sakabanaketak, mehatxuak, estradiotzioak, GALen kasua, gerra zikina, Galindo eta Intxaurrondoko jokaerak apoiatzen dituztenak, Arregi, Zabalza, Lasa, Zabala eta abarren kasuak. Askoz ere gehiago esan litezke, baina uste dut adimen pixka bat duen eta ulertu nahi duen edonorentzat aski dela. Bai, herri honen egoera oso atezua da eta konpontzeko korapilatsua; hau ez da inongo sekretua inorentzat. Luzerako izango dugu oraindik zoritxarrez.

—Baina pertsona guztiek ez al dute berdin hartzen ba sufrimendua?— galdetu dit kioskoko egunkari saltzaileak.

—Nik behintzat baietz uste dut— erantzun diot.

—Eta orduan komunikabideek zergatik azpimarratzen dituzte askoz ere gehiago zeinu baten pairamenak bestearenak baino? —insistitu du kioskoko langileak.

—Ai laguna! Gure adimenek izango balute behar beste argitasun horrelako *bitxikeriak* ulertzeko, gu superdotatuak izango ginatke— esan diot nahikoa goibel kaleko ezagunari.

Izan ere, eta gorago adierazi dudan bezalaxe gure gizarte honetan bi aldetiko bortxakeria dago gutxienez gizarte eta politikaren arazoari dagokionez. Zein bortxakeria den handiena eta arrazoi gutxiagokoa? Ba, nik ez dakit ziur, baina intuzioak esaten didan arabera eta inguruan jasotzen ditudan datuengatik, inolako zalantzarik gabe esango nuke indarkeriarik handiena estatuaren sistemak praktikatzen duela (Polizia, Guardia Zibila, GAL, Ertzaintza, eta abarrek). Baina, beno, utz dezagun hor afera hori. Hemen ez dut demostratu nahi nor edo zeinek daukan errurik handiena, besteak beste, ez naizelako aditua, ez dudalako uste neure burua horretarako gai denik eta, gainera, orain hori ez delako nire xedea. Baina errealitatea hementxe daukagu eta inor gutxi uka lezake Euskal Herri honetan dugun gatazka politiko larri eta konpongaitza.

Ziur aski, arazo honetan, beste guztietan bezalaxe, arrazoa ez da egongo alde batean bakarrik, baizik eta bietan. Batzuk ez dira santu-santuak izanen eta besteak kriminal hutsak, ez, denek

izango dituzte beren zioak eta beren erruak. Komienigarria izanen litzateke alde guztien artean elkarriketa hastea aztertzeko bakoitzak zein arrazoi eta erru duen; hortik, seguru asko, sor liteke abiapuntu eta oinarri sendo bat bakegintzan aurrera egiteko.

Baina bitartean, eta gizarte honetan gehienak behintzat ez garenez erabat gor eta itsuak, batez ere adimenaren aldetik, ba, gertatzen dena da, ikusten dugula bereizkeria eta bazterkeria ugari komunikabideen aldetik, batik bat publiko eta handien eskutik. Hau guztia argiago uztearren hiru adibide garbi hartuko ditut. Begira, azken bolada luze honetan euskal gizartean izaten ari gara (eta askotan baita kanpoan ere) gose grebak, manifestaldiak eta kontzentrazioak, beste ekitaldi



anitzen artean. Hara ba, komunikabide gehien arabera, badirudi Aldaia jaunaren alde egiten diren mobilizazio guztiak maiuskulaz idatzi behar direla, eta Euskal Herria Askatu-ko jaun-andreen mesedetan burutzen direnak, aldiz, ematen du izkiriatu beharko genituzkeela minuskulaz.

Bai, komunikabide nagusien erantzukizundun zaretzen horiek, jakin ezazue: gu, hiritar arrunt eta soilak, ez gara inozo edo zozoak eta ikusten dugu nola kolore bateko egintza guztiak iragartzen dituzten mila aldiz burutu baino askoz lehenago, nola informatzen duzuen gauzatzen diren bitartean, eta azkenik, nola errepikatzen dituzten makina bat aldiz egitate horiek bukatu eta askoz beranduago ere.

Beste koloreko egintzak, berriz, nahiz eta lehenengoak bezain ugari eta garrantzak izan, edo agian gehiago kopuruan eta mikatzagoak oraindik izakeran, diodan bezalaxe, komunikabide gehienek isildu, eta baztertu egiten dituzte.

Bai, irрати, telebista, egunkari eta aldizkari gehienentzat euskal presoan alde egiten ari diren gose grebak *Minuskuloak* dira. Horixe besterik ez dut salatu nahi hemen. Hor konpon norbera bere kontzientziarekin. ■

## Klasiko bitxi • arront klasiko

## Joxemiel Bidador

## Euskal kaligrafo bi: Juan Itziar eta Pedro Madariaga

■ Euskaldunok kultur lanetan etxetik at abondo aritu izan gara bagenera, elitzateke, ez inolaz ere, zerbait berria izanen. Espainiaren ororen ezaguna bada behar baino gehiagotan apika lotu gintzaizkiela eskribau eta notari lanbide ofizialei. Alabainan, elegoke gehiegi soberan datu zehatzez horniturik horrelako baieztapen irmoak geure buruari berari orotitaraztea, bestenez, kontzuz hutsal bilakatzeko arriskua egon daitekelako, eta hori, egia berau ez ezagutzea baino txarrago dateke.

Aipatu idazlari zalu trebe horietako bat Aragoi herrian aritu Juan Itziarkoa genuke, XVI. mendeko Europar egon zatekeen kaligraforik hoberenetakotzat jo genezakeena, eta Durangoko Tabiran 1522. urtean sortu zena hain zuzen ere. Gazte denboran, Italian ibili omen zen bere idaztanka trebe aillkatu aihoz. 1547.ean Zaragozan finkatu zuen bizitokia, eta bertan, beste lanen artean irakasle gisa aritu zen halabeharrez.

Bere teoriak eta jakintzak Juan Vingles maiasturu frantsesak landu madari zurezko moldeetatik ateratako idaztikan jaso zituen: *Recopilación sutilísima intitulada orthographia práctica por la cual se enseña a escribir perfectamente, así por práctica como por geometría todas las suertes de letras que más en nuestra España y fuera de ella se usan*. Zaragozan, Bartholome Narjerarenean, 1548an, Aragoiko erregeari eskeini liburua honek arrakasta itzela eskuratu omen zuen, edizio ugari izan zituela, bigarrena hain zuzen ere. *Arte sutilísima por la cual se enseña a escribir perfectamente* izenburuaren azpian. Azkeneko edizioa 1973. urtean agertu zen Madrilko Hezkuntz Ministeritzaren babesean, Justo García Morales irakasleak paratua. Bertan, irakurtzen irakatsi behar duen maisuari zenbait arau finkatu zion. Hain oihartzun zabalekoa izan bide zen bere lana eze Felipe II. erregeak berak deituta, Carlos printzearen idazkera irakasle izendatua izan zela.

Kaligrafia mailan bere ekarpenik nagusia hizki baxtarta zerritzaren gailentzea litzateke prozesalaren kalteaz. Pedagogia aldetik berriz, maisuei luzatu zien gomendapena haien ikasleek gaiak buruz ikasten utz ez zitzaten, hala nola, ikaslegoerakiko amultsutasunaren beharra aldarrikatu zuen. Hau dena ikus daiteke bere *Discurso de lo que más conviene al alumno que quisiera aprovechar en el arte de escribir: compendio de ciertas reglas y avisos muy útiles para el maestro que enseña a leer, el orden que debería guardar cada uno cuando comienza el aprendizaje de la escritura*.

Itziarren ikaslerik nagusien artean Francisco Lucas, Pedro Díaz Morante, Juan Sarabia edo Pedro Madariaga zeuden. Azken hau Arratiarra genuen, Dimako Oba edo barrendi auzoko Madaria baserrikoa hain zuzen ere. 23 urte zituenerako, hau da, 1560. urterako, Génova, Milano eta Erroman egona zen. Zaragozatik pasatu ostean, Valenciarako bideari lotu zitzaion, hango unibertsitateko berak sortu ortografia kataderaren jabea izatera iritsi zelarik. Ospe handia atzeman zuen bere metodoari esker. Usuean zenbait urtetan ikasten zena, berak sortu teknikari esker hilabete gutxitan ikas zitekeen, betiere bere hitzen arabera naski. Arratiarren esanetan, hizki guztiak triangelu eskaleno batek mugaturik behar ziren egon. Hau dena, Turiako hirian 1565.ean Juan Meyen etxean argitaratu bere *Libro sutilísimo intitolado honra de escribanos* liburukian agertu zuen. Lana hiru zatitan banandurik dago. Lehendabiziko bietan idaztearen beharrezotasuna aldarrikatzen du zazpi elkarrizketetan, eta bi hilabetetan idazten ikasteko bidea azaltzen du beste bost elkarrizketetan. Hirugarren zatian euskarari buruzko zenbait burutapen bazekartzan: *De los inventores de las letras, y orthographia en lengua vizcaína y quan elegante y antiguo es este lenguaje*. Euskararen historiaz badihardu apologisteen idetei jarraikiz, baina bestalde euskal ahozkaritza eta literaturari buruzko berri interesgarriak bildu zituen. Lan hau 1777.ean berargitaratu zen Madrilen bigarren aldiz *Arte de escribir, orthographia de la pluma y honra de los profesores de este magisterio* izenburuarekin Javier Santiago Palomaresek paraturik. ■



Iruñeko Hiria Xake Torneo Itxiko lehenengo jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 27an jokatu.

**Jordi Magem** (Catalunya), 2.560 ELOkoa — **Roman Slobodjan** (Alemania), 2.500 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,a6; 4.Ac6,d-c6; 5.0-0. Dd6. Endroke luzea errazten duen arren, jokaldi bitxia. 6.Za3,Ae6; 7.De2,f6; 8.Zc4,Dd7; 9.Gdl,c5; 10.c3,Df7; 11.b3,Ac4; 12.c4. 12....Ad6; 13.d4,b6; 14.e5,e5.

15.Zg5,De7; 16.f4. Ikus koadroa. Jokaldi indartsua izan da. Peoia janean gero, analisisirako txanda zabalduko da. Garbi dugu zu-riak ederki leudekeela.

16....Zf6; 17.f5,0-0-0; 18.Ze6,dG-g8; 19.Ag5,g6; 20.aG-bl,f5; 21.f5,Gg5.

Agian, alfil-zaldi trukea galarazteko, gazteluen sarre-  
ra eragotzi nahian.

22.Zg5,e4; 23.Gd6.

Gazteluen sarrera hortxe dago, 'Zf7' mehatxuarekin.

23....d6; 24.Gb6,Zd7; 25.Gbl,Dg5; 26.De4.

Zaldia eman ondoren, partida biribiltzea besterik ez da falta.

26....d5; 27.d5,Ec7; 28.d6 xa,Ed6; 29.De6 xa,Ec7; 30.Gdl,dd8; 31.f6,Gf8; 32.f7,a5; 33.Dd6 xa,Ec8; 34.Da6 xa,Ec7; 35.Dd6 xa,Ec8; 36.Da6 xa,Ec7; 37.Da5 xa,Ec8; 38.Da6 xa,Ec7; 39.Da5 xa,Ec8; 40.Da6 xa,Ec7; 41.De6,Ec8; 42.Gd6,Ec7; 43.Dd5,De7; 44.Dc6 xa,Eb8; 45.Db5 xa.

Matea sailhestezina denez, beltzek etsi egin zuten.




# Remote: lanpostu berriak sortzeko

*Cederna-Garalurrek Nafarroako nekazal guneetako emakumeentzat plan telematikoa jarriko du martxan*

**A**urki, Nafarroako nekazaritza guneetan bizi diren emakumeei zuzenduriko Remote ekimen berritzailea jarriko da martxan. Remotek, teknologia telematikoa, telelanaren teknikak eta enpresaren kudeaketa uztartzen ditu eta enpresa propioa sortu edo beren lanean hobetu nahi duten emakumei zuzendua dago.

Irene Arrizurieta /Iruñea



Telematikaren bidez emakumeak nahi duen momentuan eta etxetik bertatik lan egiteko aukera izanen du.

JOXE LACALLE

CEDERNA-GARALUR, Nafarroako Landa Lurraldeen Garapenerako elkarteak da Remote proiektuaren egilea eta bultzatzailea. Aipatu proiektua esperimental da eta Europako Batasuneko Now II ekimenaren atal bat da. Marta Mañas, Cederna-Garalurreko aholkulari teknikoa da eta nekazaritza eskualdeetan aplikatzen diren teknologia berrien alorrean aritzen da lanean. Bera da, Marian Serranorekin batera, ekimenaren arduraduna eta azaldutakoaren arabera, Remote proiektu esperimental da eta ez da soilik teknologia berriak ikasteko ikastaro arrunt bat. Remotek, teknologia berrien esparruan emakumeentzat lanpostuak sortu edo bultzatu nahi ditu. Baina, Remote planean soilik informatika eta ingelesa edo frantsesa dakiten eta ikasketa ertainak edo goi mailakoak dituzten emakumeek hartuko dute parte.

Europako Batasuneko beste herrialde batzuetako heziketa erakundeekin batera garatuko du Remote proiektua Cederna-Garalurrek. Proiektuaren helburua argia da Marta Mañasek dioenez. «Teknologia berrien esparruan batik bat, Nafarroako nekazaritza guneetan bizi diren emakumei lana lortzea erraztu nahi die ikastaroak edo bere enpresa propioa sortzeko ideiak eta aukerak eman». Ildo berean, Nafarroako nekazaritza guneak husten ari direla aintzat hartuz, ekimenak eskualde hauetan lanpostu finkoak sortu nahi ditu eta bide batez, populazioa finkatu.

## Europako Batasuneko beste herrialdeekin hartu-emanak izateko aukera

• Plana, Europako Batasuneko Leader ekimenak, Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalur elkarteak finantzatzeko dute eta oraindik erabakitzeke dagoen herrialdeko nekazaritza gune batean jarriko da martxan. Nafarroan bertan izango den arren, ikasleak teknologia hauek lantzen dituzten Batasuneko beste herrialde batzuekin harremanetan egon eta lan egin ahal izanen du. Mañasek azaldu duenez, «gurekin lan egiten duten Batasuneko erakundeak, prestakuntzan eta teknologia berrien lan munduan emakumearen berdintasuna ahalbi-

detzeko prestakuntza eta ikerkuntza lanetan aritzen dira: Dimitra Grezian edo Erresuma Batuko Manchester hirian dagoen teknologia informatikoen Womens Electronic Village Hall zentroarekin esaterako eta horiekin hartu-emanak izateko aukera dago».

Marta Mañasen iritziz, Remote proiektuaren bidez, telematikaren teknologia lan mota askotan aplikatu daiteke, baina beti ere zerbitzu sektorean. «Lan tipoa oso zabalak dira. Oso esperientzia desberdinak ezagutzen ditugu Erresuma Batuan edo Belgikan. Batzuetan ez dute funtzionatzen, baina horrek ez du esan nahi aktibitate horietan bakarrik aplikatzen denik». Egun, informatika eta komunikabideak uztartzen dituen telematika asko aplikatzen ari da: cad-can (ordenadorez egindako diseinua) ofizina teknikoetara, artxibo mantentimenduetan, teledidaktikan, teleitzulpenean, autoedizioan, enpresetako kontabilitatean edo nominen kudeaketan. Korrespondentsaliak dira eta enpresa edo erakundeentzat zerbitzu orokorrak eman ahal ditzakete».

## Espanian eta Europan ez dago horrelako beste lan heziketarako planik

• Remote plana berria da Batasuneko beste herrialdeetan ez baitute horrelakorik. Cederna-Garalurreko aholkulari teknikoa dioenez, «egun dauden heziketa eta metodologiaren oinarritzen da plana, baina martxan jartzen dugun heinean ikertu egingen dugu. Honek esan nahi du, metodologia eta heziketarako material berria sortuko dela eta ikasleak beraiek egindako lanaren bitartez osatuko da plana, nolabait sortzen lan egin beharko dute». Halaberean, Re-

motek nekazaritza guneetako emakumei egungo teknologietan prestakuntza eskaintzen die eta edukina bera ere orain arte dagoenaren bestelakoa da, informatika, telekomunikabideak eta enpresen kudeaketa uztartzen dituelako. Gainera, beste ikastaro batzuek eskaintzen ez dituzten oso eremu praktikoa interesgarriak ditu. Mañasek azaldu duenez, «batetik, aipatu teknologia berri hauek benetako egoera errealean aplikatuko dira eta hartu-emanetan egonen dira lanean gauden Europako Batasuneko beste herrialdeetako ikasleekin, praktikak nazioartekoak izanen baitira. Bestetik, ikasle bakoitzak bere enpresa proiektua egin beharko du. Gogoeta egin beharko du telezerbitzuetan errentagarri izan daitekeen produktu bati buruz, eta telematika eta telelana bere aktibitatean nola uztartu aztertu beharko du».



Marta Mañas da Remote planaren arduradunetako bat.

JOXE LACALLE

## Ekimenak harrera ona izan du

CEDERNA-GARALUR Elkarteak iragan abenduaren 27an hasi zen bilerak egiten Nafarroako iparraldeko nekazaritzako guneetan Remote proiektuaren berri emateko. Ekimenaren bultzatzaileek oso pozik daude orain arte egin dituzten bileretan emakume franko agertu delako. Dagoeneko, Sakana, Larraun-Ultzama, Leitxaran, Zaraitzu, Erronkari, Agoitz-Irunberri eta Zangozako inguruetan egonak dira, eta Agoitzen egin zuten

deialdira, esaterako, 35 emakume agertu ziren ekimenaren berri jakiteko. «Uste baino harrera hobea izan du Remotek, eta 25etik eta 35 urtera bitarteko emakume ugari hurbildu dira egin ditugun bilere-tara», azaldu du-baikor Mañasek. Baztan, Mallerreka eta Bortzirietako emakumeekin gaur izanen dute informazio bilera, eta hortik aurrera ikastaroaren prestakuntzan bete-betean sartuko dira.

Remote ekimenak an-

tzekoak izanen diren bi ikastaro eskainiko ditu heldu den otsailetik 1997ko abendura bitartean eta guztira 30 leku ditu. Ikastaro bakoitzak 11 hilabete iraungo du, eta gehienez 15 ikasle hartu ahal izango dute parte. Izena emateko epea ilbeltzaren 18an akituko da, eta ondoren, leku gutxi direnez, hautaketa probak egingen dira. Ikastaroan 400 ordu teoriko emanen dira. Praktikak norberaren ikastaroaren eta enpresa proiektuen

garapeneraren arabera-koak izanen dira, eta ikasleak, hori aintzat hartuz, nahi adina egin ahal izanen ditu. Mañasek dioenez, «ikasleak buruan duen proiektua garatzen lagunduko diogu. Ikasleak bere proiektua aurrera ateratzeko elkarteko irakasleengandik, Leader Europako ekimenetik eta Cederna-Garalurretik laguntza tekniko lortuko du, eta dirulaguntza eskaintzeko aukera ere begiratzen ari gara». X

Remote planak telematikarekin lan egiten duten

Europako

Batasuneko beste enpresa batzuekin lan egiteko aukera ematen du

Ikastaroa, bereziki, enpresa propioa sortzeko asmoa edo lanpostuan hobetu nahi duten emakumei zuzentzen zaie

◆ **Joaquin Perez Seoane** ◆ Iruñeko Xake Torneoko zuzendaria

# «Ez dugu ikuskizun hutsa nahi»

**J**ordi Magem kataluniarra nagusitu zen joan den larunbatean amaitu zen Iruñeko VI. Xake Txapelketa Irekian, Julio Granda eta Miguel Illescasen aurrean. Txapelketa oso lehiatua izan da, eta Joaquin Perez Seoane zuzendariak dioenez, heldu den urtean izena duten jokalariek ekarri nahi dituzte Iruñera.

Alberto Barandiaran / Iruñea

XAKEZALE amorratu honen ustetan, azpimarragarrietakoa izan da txapelketan zehar nafarrek izan duten egitekoa, eta luze gabe horietako batek —Unai Garbisuk, seguru aski— torneo itxia jokatu duela dago. Perez Seoanek azpimarratu du, halaber, De la Villa maisua nafar gazteekin egiten ari den lana.

■ **Torneoaren balantzea egitean emaitza ona izan zela esan zuten. Zerbait azpimarra zitekeen bereziki?**

Torneoan maila ona izan zela esan genuen arrazoi batzuegatik. Hasteko, inoiz baino jokalaririk izan direlako torneo Irekian. Halaber, interes handiagoa sumatu dugu, orokorrean, xakeari buruz —jokatu dutenen artean 14 infantil mailakoak izan dira—, eta gure jokalaririk onenak, Unai Garbisuk, irabazi egin zion Mellado maisuari. Unai da onena, eta berarengan itxaropen handia dugu jarria, baina atzetik badator xakelari multzo bat Garbisuri gorriak ikustarazteko gai dena. Oso kontent gaude torneo itxiarekin, nahiz eta partida askotan parra egin duten jokalariek. Denek uste genuen Illescas nagusituko zela, eta berak ere horrela pentsatu zuela. Te dut. Azken partidetan nahi izan zuten parra egin, eta Felix izan irabazi egin zion; az-



Joaquin Perez Seoane.  
JOXE LACALLE

kenean, lehena izan beharrean, hirugarrena gelditu zen.

■ **Partidak aztertzean nabari izan da berdintasuna izan dela gehienetan. Horrek ikusgarritasuna kendu dio jokoari?**

Partida onak ikusi dira. Berdintasun handirik ez da izan, aspaldian ekartzen ditugulako torneo honetara maila handiko jokalariek. Parra izan dira, egia da, eta batzuk aurretik hitzartutakoak izan dira, hala nola De la Villak eta Illescas jokatu zuten partidaren izan zena. Baina beste parra batzuk —Illescasen eta Ljubojevicaren artekoak, kasu—, jokaren ondorio izan dira, borrokatuak. Torneo Irekian ere izan dira hitzartutako parra batzuk, baina horrekin ezin da ezer egin. Partida ederrak ikusi dira, hala ere.

■ **Hitzartutako parra hitzidatzen izan zenituzten torneoaren amaiera ekitaldian. Zerbait egin daiteke hori buruz?**

Torneo itxian ezin da ezer egin, jokalaririk borrokalariagoak bilatzea ez bada, eta hori dagoeneko egiten dugu. Adibidez, gurekin egon da urte zenbaitetan Judaxin, eta gizon honek ez du inoiz etsitzen. Partidaren bila doa beti. Zvianginsevek eta Ljubojevic ere ez dute inoiz amore ematen partida erabat galduta ikusten duten arte. Torneo Irekian, berdin. Ezin ditugu arau batzuk jarri bereizteko parra eta besteak, baina Irekian zenbait arau aldatu nahi ditugu borroka handiago izan dadin. Oraindik ez dakigu nola, baina modu bat izan daiteke publikitate handiagoa ematea, aurten etorri diren 12 maisu handi horien partez 25 etor daitezten. Jakina, sari berberak eta jende gehiago baldin badago, ezin dituzte partidak hitzartu.

■ **Jokalariek, askotan, nazioarteko puntuazioari begira daude etengabe. Horrek eragina izan**

**dezake jokoan, puntu guztiak kalkulatzeko direnez gero?**

Torneo itxian egunero epaileak ematen die jokalariei beren sailkapenaren berri, jakiteko zer irabazi edo zer galdu duten. Horrela, jokalariek badaki zer egiten ari den sailkapen profesionalari begira. Torneo Irekian lortu nahi dugu jokalaririk nafar gehiagok izan dezatela nazioarteko puntuazioa, ELO dutenei irabaziz gero eskuratu egiten da-eta.

■ **Torneoa hamahirugarren tokian dago munduan egiten diren artean. Asmoa al da maila igozteko, hobetzea?**

Ez dugu torneoaren kategoria igo nahi, gure ustez nahikoa erakargarria delako maila hori torneo Irekian polita egiteko, nafar guztiak treba daitezten eta xakea bultzatzen. Ez zaigu interesatzen ikuskizun hutsa, kirola egin nahi dugu-eta. Horretarako, bidea utzi behar dugu nahi duen guztiak parte har dezaten txapelketan honetan.

■ **Eta noiz iritsiko da Unai Garbisu torneo itxira?**

s o s l a i a

Oberena taldeak urtero-urtero antolatzen duen Iruñeko Xake Txapelketaren arima Joaquin Perez Seoane da, eta pozik amaitu zuen hagitx larunbatean sariak eman zirenean. Kirol arloari erreparatuta, ez da sobera distratsua izan maisuen jokoa, baina inoiz baino nafar gehiago aritu da bertan, eta horixe da torneoaren helburu nagusietako bat.

Heldu den urteari begira, zenbait aldaketa egin behar azpimarratu zuen Perezek, horien artean hitzartutako parra gehiegi errepika ez daitezkeen neurriak, eta izen handiko jokalariek eta gazteak tartekatzea.

Ordu asko kentzen badizkio ere, torneoak poz handiak ematen dizkiola dio, eta gogoan du batez ere dena ongi joan ondoren torneoa bukatutzat ematen duten unea. Hurrengo urteko torneoarako desio bakarra du: «Aurrera jarraitzea».

Laster izatea nahiko nuke, baina hori Unai berak erabaki behar du, orain duena baino ELO handiagoa behar duelako. Txapelketa honek daukan maila jais-tea ere ez da komeni —jokalaririk handiak ekarri ahal izateko—, eta, beraz, bere maila hobetu behar du Garbisuk. Orain ikasten ari da, eta horrekin jarraitu behar du. Nire ustez, uda honetan zorte pixka bat baldin badauka ikaske-ekin, eta torneo batzuetan parte hartzen baldin badu, emaitza onak lor ditzake falta zaizkion puntu horiek lortzeko. Beraz, akaso heldu den txapelketan ikusi ahal izango dugu Garbisu handiekin.

■ **Gazte horren igoeran zerikusirik izango du De la Villa maisuaren lanak.**

Jakina. Kontuan hartu behar da Garbisu Espainiako txapeldua dela jubeniletan, eta hori De la Villak eguneko lanari esker izan da, neurri batean. Niretzat, irakasle hobe da jokalaria baino. Badaki irakasten eta jokalaririk maila asko hobetu da. x

«Ez dugu Torneo Itxiaren kategoriara igo nahi, gure ustez nahikoa erakargarria delako maila hori Torneo Irekian polita egiteko»

## P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ  
HONATAGO  
•5•  
GAUR  
CELOSAMENTE  
GORDIAK

(Musika BAP! hitzak/terraniko E.H.E.)

Nintzen un niño etorri zenean la nueva era eta todo hasi zen a izan diferente. Yo no dezeitak acordarme pero por muchos ratos que me acordaba de todos los belosamente gordeak imaginatzen dut como zen el mundo como jolasten genuen como hitzegiten genuen.

Al principio mis padres y todos los de su generación saiatu ziren en conservar el idioma que hitzegiten zuten desde siempre pero por las noches a escondidas hartzen buen cuidado de que nadie jakitea nos zizpazen irakasten como al zuten su lengua. Pero cada dia nekatzen naiz mas al ekarri a la memoria aquellos pequenos ratos super vivientes de una vieja lengua.

Uena dago dekadentzian dena doa hiltzera orain ez dut gehiago borrokatuko orain neke bai nago eta geratzen zaidan gauza bakarra heriotzaren bixita lasala itzarotea da.

hazken musikak nerekin.